

# Oposizioak «politika histerikoa» alboratu eta politika zentzuz egitea nahi du EAK

Goienetxeak eta Lasagabasterrek itxaropenez hartu dute EHren jarduera

Iñaki Uriarte / Leioa

Militante historiko biri eginiko omenaldian, Juan Carlos Goienetxea eta Begoña Lasagabasterrek agerian utzi zuten bakearen aldeko apustua egin duten taldeek pauso nagusiak egiten ari direla. Oposizioaren jarrerari «histeriko eta ulergaitza» iritzi zion diputatu gipuzkoarrak.

EUSKO ALKARTASUNAKO burukideak itxaropentsu agertu ziren «gobernagarritasun akordioan aurrera egiten lagun dezaketen oinarri berdintsu eta bateratuak» finkatzen doazelako. «Argi dago pauso nagusiak ematen ari garela bakearen aldeko apustua egin dugun taldeok, eta gainera bakea denen artean berba eginda».

Prozesu horretan nork bere ardura duela oroitarazi zuen Bermeoko alkateak. «Gure bideak ez dira inoiz izan inor kanporatzeko, beti esan dugu denek hartu behar dutela parte, eta parte hartzen ez dutenek euren erantzukizuna izango dute», gaineratu zuen Goienetxeak Leioan.

Lasagabasterrek «harrigarri» iritzi zion oposizioak EAerako balizko aurreakordioa dela eta hartu duen jarrera. Dei egin zien berbidera dezaten jarrera eta gogoko ez dituzten gaietan «zentzuzko» oposizio parlamentarioa egin dezaten. Berriz ETaren garaipena edo mailetak aipatu izana «politika histerikoa» dela, berretsi zuen.



Begoña Errazti, EAKo parlamentaria, Gasteizko Abertzaleen Batzarreko kideekin.

## Nafarroaren geroaz aritu dira EAKo gazteak

Edurne Elizondo / Iruñea  
GAZTE ABERTZALEAK taldeko kideek bilera egin zuten, atzo, Iruñean, azken hilabeteotan prestatu *Nafarroa ta geroa* izeneko agiriari azken ukituak eman, eta onartzeko. Aipatu agiriaren, Nafarroaren etorkizunari buruz egindako gogoeak bildu ditu Gazte Abertzaleak taldeak, gure herrialdeko egoera «normalizatzeko» asmoz.

EAKo Begoña Erraztiarekin batera *Nafarroa ta geroa* dokumentuaren asmoak azaltzeko kazetarien aurrean agertu zen, atzo, Gazte Abertzaleen kide Mikel Irujo, eta agiriak bi ardatz dituela azpimarratu zuen: «Batetik, geroari buruz ditugun asmo orokorrak biltzen ditu, hau da, nahiko genukeen etorkizuneko Nafarroari buruzko gogo-

etak; eta, bestetik, egungo errealtate-tik abiatuz, gure gizartea normalizatzeko egin behar diren aldaketei buruzko eztabaida».

Nafarroaren geroari buruzko Gazte Abertzaleen agiriak, hainbat gai ukitu ditu, Nafarroaren testuinguru historikoa, Nafarroaren, Euskal Autonomi Erkidegoaren eta Iparraldearen arteko harremanak,

Nafarroa eta euskara, eta Europa. Gai hauek guztiak jorratu ondoren, ondorio batera heldu dira Gazte Abertzaleak: «Nafarroak, arlo guztietan, normalizazioa behar duela».

Begoña Erraztik, bestalde, bukatu berri den legegintzaldia izan zuen mintzagai, eta UPNren gobernuak «enfrentamendua bultzatu» duela nabarmendu zuen.

PP eta PSOE «suari egurra botatzen» ari direla iritzi dio Anasagastik

■ Legegintzaldi akordioa «deskalifikatu» nahi izatea egotzi die

Europa Press / Bilbo

IÑAKI ANASAGASTI EAJko diputatuak «suari egurra botatzea» egotzi zien atzo PP eta PSOeri. «Euskaldi pil-pilean eta biolento nahi dute, Euskadi normalaren orde». PPko eta PSOEko hainbat ordezkari EAJ, EA eta EHren arteko legegintzaldi akordioaren aukerari buruz kritikak egin zituzten, eta horrela erantzun zien Anasagastik kritika horiei.

PPk eta PSOEek legegintzaldirako akordio posiblea «deskalifikatu» nahi duela ziurtatu zuen Anasagastik. «Hori ez da abertzaletasun arazoa, demokrazia arazoa baizik», adierazi zuen. Aipatu alderdiek Ibarretxerekiko azalduko jarrera ere kritikatu zuen.

Bestalde, *Abc* egunkariak kaleratu zuen HBren barne agiri batek azaltzen duela EAJrekin duen akordioarekin inpedentzia bilatzen duela. «Inola-ko zentzurik gabeko espekulazioak» direla azaldu zuen Anasagastik.

«Legegintzaldi akordioak PP hirietan garaile izatea eragotzi nahi du», dio Arenasek

Efe / Malaga

EAJ, EA eta EHk legegintzaldiari begira egin dezaket akordio posibleaz mintzatu zen Javier Arenas PPko idazkari nagusia ere. Hauteskundeekin lotu zuen gaia Arenasek, eta bere ustez, «PPk euskal hiri garrantzitsuetan ez irabaztea du helburu».

Arenasek EAEko PPreh ahalegina goraiatu zuen Malagan eginiko ekitaldi batean. «Alderdia ez da besteen baldintza beretan aurkeztuko, batzuk saiatu baitira aurkeztu ez gaiten».

PPk ez duela inorekin koaliziorik egiten nabarmendu zuen Arenasek. «Herriarrekiko akordioa bilatzen dugu hauteskontzen bidez», esan zuen.

## «Inmobilismoa ardatz duen politikaren preso da Aznar», Rafa Diezen ustez

■ LABeko idazkariak zenbait aldaketa atzeman ditu PSE-EEren baitan

Europa Press / Bilbo

RAFA DIEZ LAB sindikatuko idazkari nagusi eta EHko parlamentarioak atzo berriz ere berretsi zuen Euskal Herrian abiatu beharreko bake prozesuak Irlandakoa izan behar duela eredu. Europa Press berri agentziari eskainitako elkarrizketan azaldu zuen bere ustez Downing Street-eko adierazpenaren modukoa beharrezkoa

litzatekeela Euskal Herrian ere, eta horrelakorik ez dela izan oroitarazi zuen. Adierazpen hori izateko, halaber, beharrezkoa jo zuen alderdi guztiek eta Espainiako eta Frantziako gobernuak onartzea, euskal gizartearen borondatea errespetatu behar dela.

Jose Maria Aznar Espainiako presidentea egoera berriari aurre egiteko «erreze-ta politikorik ez» duela iritzi

dio Diezek. Bere ustez, «Mayor Orejaren tesiak dira orain protagonista, Lizarra jazarri eta erori dadin nahi dute eta horretarako Aznarren babes politikoa du. Aznar immobilismoa ardatz duen jarrera politikaren preso da».

Azken aldi honetan PSE-EEren baitan zenbait aldaketa igarri dituela azaldu zuen Diezek. Aldaketa hori Lizarraren «sendotasuna» ikusi



Rafa Diez.

ostean etorri dela dio Diezek. Hala ere mugimendua benetakoa den ikusteko itxaron behar dela uste du.